

SEGURA / Liburutegia aste honetan zabaldu da ikasturte berrirako

ANDONI ETXEBERRIA/SEGURA.DV.

Oporraldiaren ondoren, Udal liburutegiak aste honetan zabaldu ditu berriro ateak ikasturte berrirako.

Astelehenetik ostiralera egongo da irekita biblioteca, ohizko ordutegiarekin, hau da, 16.00etatik 19.00etara.

Datozen hilabeteetarako hainbat nobedade eskaintzen dira liburutegian irakurleentzat, titulu berri asko topatuko baitituzte apaletan. Ikus-entzunezkoen aldetik ere aukera handitu egin da eta DVD-ak ikusteko aukera izango du bazkideak.

KZguneko ikastaroek ere liburutegian jarraituko dute orain arte bezala, tutorearen bisita eta mintegiekin.



Titulu berriak aurkituko ditu irakurleak liburutegian. [ETXEBERRIA]